MADDI ALTUNA ODRIOZOLA (1. guztira 1)
Ingurumen Zerbitzuko Arduraduna
Sinaduraren data: 06/12/2023
HASH: 1ef3243a3e2642064087005552472ed3e

EKOIZLE TXIKI ETA HANDIEK SORTUTAKO ETXEKO HONDAKINEN FRAKZIO DESBERDINAK BILTZEKO HAINBAT EDUKIERATAKO EDUKIONTZIAK HORNITZEKO BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAK

1 – Kontratuaren xedea 2

2 – Aurreikusitako unitateen hornidura eta edukiontzien banaketa, loteka..... 2

3 – Horniduraren ezaugarri teknikoak 2

3.1 Hornitu beharreko edukiontzien dimentsioak eta ezaugarri teknikoak __ 2

3.2 Edukiontziak entregatzeko baldintzak_____ 4

Nafarroa Etorbidea, 17. 20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)
Tel:943793399 Faxa: 943770854
debagoiena@debagoiena.eus
www.debagoiena.eus

Baliozkotze Kod.: 43ASQ66HGYRMJA66H7NT3G3GK
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 6

1 – Kontratuaren xedea

Agiri honetan oinarrituta formalizatuko den kontratuaren xedea hainbat edukieratako edukiontziak (10, 20 eta 1.100 litro) hornitzea izango da, sortzaile txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinen frakzioak biltzeko, hala nola merkataritza-jarduerak, ostalaritza, ekoizpen-jarduerak, jantokiak, etab.

2 – Aurreikusitako unitateen hornidura eta edukiontzien banaketa, loteka

Edukiontzien urteko hornidurari buruzko ondorengo zerrendan agertzen diren datuak orientagarriak dira, eta ez da baztertzen zehaztutako unitateak baino gehiago edo gutxiago eskatzeko aukera:

- 1. LOTEA (10 l-ko edukiontzia): 4.500 unitate.
- 2. LOTEA (20 l-ko edukiontzia): 900 unitate.
- 3. LOTEA (1.100 l-ko edukiontzia): 200 unitate.

3 – Horniduraren ezaugarri teknikoak

Jarraian, hornitu beharreko edukiontzien ezaugarri teknikoak deskribatzen dira, baita hornidura zer baldintzatan egin behar den ere:

3.1 Hornitu beharreko edukiontzien dimentsioak eta ezaugarri teknikoak

Hornitutako materialak baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Edukiontziak hiru edo lau zati izango ditu, edukieraren arabera, taula honetan zehazten den moduan:

LOTEA	TAPA	HELDULEKUA	GORPUTZA	ERRODADURA SISTEMA	FRAKZIO POSIBLEAK
1. Lotea (10 l.)(1)	Polipropilenoan (PP) edo dentsitate handiko polietilenoan (HDPE), blokeagarria (2) heldulekuaren bidez	Librea PP edo HDPEn	PP edo HDPE fabrikatua	Gurpilik gabe	Organikoa Errefusa
2. Lotea (20 l.)(1)	Polipropilenoan (PP) edo dentsitate handiko polietilenoan (HDPE), blokeagarria (2) heldulekuaren bidez	Librea PP edo HDPEn	PP edo HDPE fabrikatua	Gurpilik gabe	Organikoa Ontzi arinak Paper-kartoia Errefusa
3. Lotea (1.100 l.)	HDPEn blokeatu gabeko eragingailu libreko tapa laua	Solidarioa (HDPE) edo espezifikoa arrastatzea errazteko	HDPE fabrikatua	Gomazko gurpil independenteak, 360º-ko biraketarekin eta balaztekin	Organikoa Ontzi arinak Paper-kartoia Errefusa

(1) I. eranskinean 1. eta 2. loteetako edukiontzientzako gehieneko kotak eta tolerantziak ezartzen dira. Ez da onartuko gehienezko kotak eta tolerantziak errespetatzen ez dituen eta I. eranskinean zehaztutako esekidura-sistemarekin bateragarria ez den edukiontzirik. Zeharkako sekzioak, bisagran zehar, forma erdiesferikoa edo antzekoa izan beharko du, elementu horretatik zintzilikatzeko euskarri gisa erabiliko dela bermatzeko.

(2) Edukiontziaren tapa erraz blokeatu beharko da heldulekuaren bidez, tapa edukiontziaren gorputzaren aurrealdera edo atzealdera erorita egotearen arabera.

Baliozkotze Kod.: 43ASQ66HGYRMJA66H7NT3G3GK
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 6

2. Hornitu beharreko edukiontziak honako kolore-paletara egokitu beharko dira, RAL sistema klasikoaren arabera:

EDUKIONTZIA	RAL	RAL-RGB	IZENA
FRK. ORGANIKOA	8007	089-053-031	ORKATZ ILUNA
ONTZIAK	1016	237-255-033	SUFRE HORIA
PAPER-KARTOIA	5005	030-045-110	SEINALE URDINA
FRK. ERREFUSA	7012	078-087-084	BASALTO GRISA

Aurkeztutako dokumentazioan ziurtatu beharko da horniketa eskatutako RALera egokituko dela. Antzeko beste RAL bat erabili nahi bada, baina ez berdina, dokumentazioan adierazteaz gain, material plastikoaren laginak aurkeztuko dira, gutxienez 0,2 x 0,2 m-koak azalerakoak.

3. Edukiontzia osatzen duten plastikozko zatiak (tapa, gorputza eta/edo heldulekua) ahalik eta gehien material birziklatuz fabrikatuta egongo dira, betiere horrek edukiontziari edo haren edozein zatiei sendotasun eta erresistentzia baldintzak kentzen ez badizkio. Lizitatzaileek birziklatutako materialen erabilera-ziurtagiriak aurkeztuko dituzte

4. 3. loteko edukiontziek hondakinak biltzeko ibilgailuak, muntatutako sistema jasotzaileen bidez (edukiontziak altxatzeko eta iraultzeko gailuak), hustu ahal izateko elementuak izan beharko dituzte. Mankomunitateak baloratuko du atzeko kargako kamioien zamalanetarako edukiontzien moldatzeko gaitasuna, eta lizitazio-prozesutik kendu ahal izango ditu behar bezala egokitzen ez direnak. Ez da onartuko orrazi jasotzailearen bidez bildu ezin den edukiontzirik.

5. 3. loteko edukiontziak fabrikatzen dituen enpresak EN 840 Hondakinentzako eta birziklapenerako edukiontzi mugikorrak arauaren honako zati hauek bete beharko ditu (lizitatzaileak aurkezteko unean indarrean dagoen bertsioa):

- *2. zatia: 4 gurpileko edukiontziak, 1.300 l arteko edukiera dutenak, muinoi eta/edo orrazi erako goratze-gailuetarako tapa lau batekin edo gehiagorekin. Dimentsioak eta diseinua.*
- *5. zatia: Jokabide eskakizunak eta saiakuntza metodoak.*
- *6. zatia: Segurtasun eta osasun baldintzak.*

6. 3. loteko lizitatzaileek EN 840 (EN 840-6) arauaren 6. zatiko 12. atalean aipatutako "Enplegu-jarraibideak" eman beharko dizkiote Mankomunitateari. Edukiontzi horien balorazio teknikoan kontuan hartuko dira aurkeztutako dokumentuko "Ereduzko saiakuntzan neurtutako trakzio-indarra" atalean lortutako emaitzak.

7. Hornitutako edukiontziek Mankomunitateak zehaztuko duen logoa aurkeztuko dute. 3. loteko edukiontzietarako, logo hori termo-inprimaketa bidez grabatuko da.

Logoa gorputzaren alde batean kokatuko da; ziurrenik, aurrealdean.

Logoaren diseinua, posizioa eta dimentsioak esleipendunarekin kontratua formalizatzen den unean aurkeztuko dira

Baliozkotze Kod.: 43ASQ66HGYRMJA66H7NT3G3GK
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 6

8. Edukiontziek eta haien zatiek, diseinatutako erabileraren arabera, aurre egin beharko diete kolpeei, agente kimikoen erasoari, atal desberdinen manipulazioari, etab.

Nolanahi ere, eta kontuan hartuta erabiltzaileek edukiontzia eraikinetik kanpora atera beharko dutela, eta are gehiago, edukiontzi jakin batzuk beti kanpoan egongo direla, edukiontziek erresistentzia izan beharko dute UV izpiekiko, bat-bateko tenperatura-aldaketekiko, hezetasun handiko baldintzekiko, euriarekiko eta abarrekiko..

9. Edukiontzia osatzen duten zatiek inprimatuta aurkeztu beharko dute fabrikazio-data eta fabrikatuta dagoen material mota, material plastikoan bertan grabatuta. Grabazio hau leku diskretu batean egingo da.

10. Tapa modu zehatzean doitu behar da edukiontzien gorputzaren gainean. Mankomunitateak alderdi hori baloratuko du proba teknikoen bidez, eta behar bezala egokitu ezean, eskainitako edukiontzia lizitazio-prozesutik kanpo geratuko da.

11. Edukiontziak sendoak eta erresistenteak izan beharko dute, erabilera luzea bermatzeko.

1. eta 2. loteetarako, Mankomunitateak hainbat sendotasun- eta erresistentzia-proba egingo ditu, eta balorazio teknikoan puntuatuko dira. Gainera, 1. eta 2. loteetako lizitatzaileek sendotasun- eta erresistentzia-ziurtagiriak aurkeztu ahal izango dituzte.

3. lotearen kasuan, edukiontzien sendotasuna eta erresistentzia EN 840-5 araua betez bermatuko da.

3.2 Edukiontziak entregatzeko baldintzak

1. Hornitutako materialaren garraioa kontratuaren prezioan sartuta dago, eta hura ez da aldatuko aurreko paragrafoan ezarritako entrega-sistemaren bidez, erregaien prezioak goranzko zein beheranzko aldaketak izan arren. Era berean, prezioan sartuta daude horniduraren deskarga eta biltegiratzea. Lan horiek egiteko behar diren langileak eta bitartekoak esleipendunak jarri behar ditu (plataforma jasotzailea ibilgailuan, transpaleta, orga jasotzailea, etab.), Mankomunitateko langileak eta bitartekoak inplikatu gabe.

2. Mankomunitateaz gain, esleipendunak hornitutako materialaren kontrola egingo du kontratuak irauten duen bitartean eta, hala badagokio, esleipendunak garraiatu edo manipulatu bitartean apurtutako unitate akastunak eta abar birjarriko ditu.

3. Mankomunitateko zerbitzu teknikoek berariaz onartuko dute egindako entrega, haren egoera gainbegiratu ondoren. Edonola ere, eta materiala jaso ondoren, Mankomunitateari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik material akastunak atzematen badira, esleipendunak material hori birjarri beharko du, Mankomunitateari inolako kosturik eragin gabe

4. Nahiz eta lizitatzaileak pleguen agirian eskatutako ezaugarriak dituzten edukiontziak eduki biltegiratuta, ez da onartuko edukiontzien edo horien zatien hornidura, baldin eta eskaera egin aurreko sei hilabeteak baino lehenagoko fabrikazio-datak badituzte.

Baliozkotze Kod.: 43ASQ66HGYRMJA66H7NT3G3GK
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 6

5. Proposamenak aurkeztean, lizitatzaileak eskala errealeko eredu bat aurkeztu beharko du lote bakoitzerako, % 100ean muntatua eta operatiboa, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek azter dezaten, eta egoki iritzitako eragiketa-probak egin ditzaten

Eredu horiek Mankomunitatearen egoitzan entregatuko dira, eta biltegian geratuko dira esleipena ebazten den bitartean.

Lizitazio-prozedura amaitzean, lizitatzaileek aurkeztutako eta hautatu gabeko ereduak kendu ahal izango dituzte.


Hautatutako eredua Mankomunitatean egongo da lote bakoitzeko edukiontziak Mankomunitateari lehen aldiz eman arte.


Mankomunitateak konpromisoa hartzen du aukeratu gabeko ereduak bere bulegoetan mantentzeko, kontratua esleitzen denetik gehienez hiru hilabetez. Epe hori igarota, edukiontziak Mankomunitatearen jabetzakoak izango dira.

Modeloren batek kalterik, galerarik edo lapurretarik jasango balu Mankomunitatean gordeta dauden bitartean, Mankomunitateak bere gain hartuko luke horien kostua.


Baliozkotze Kod.: 43ASQ66HGYRMJA66H7NT3G3GK
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 6

Baliozkotze Kod.: 43ASQ66HGYRMJA66H7NT3G3GK
Egiaztapena: https://sedeelectronica.ejie.eus/sedeelectronica/es/PU...
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 6






B XEHETASUNA - DETALLE B



D: Bisagraren gutxieneko diametroa - Diámetro mínimo de la bisagra.
F: Bisagra eta heldulekuaren arteko gehieneko espazioa - Espacio máximo entre la bisagra y el asa.
H: Gehienezko altuera - Altura máxima.
J: Bisagraren gutxieneko espazio askea - Espacio mínimo libre de la bisagra.
Z: Gehienezko zabalera - Anchura máxima.



ESEKITOKI EREDUA - MODELO COLGADOR

A Eranskina
Anexo A

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Edukiontzi Mota Tipo Contenedor	D (mm.)	F (mm.)	H (mm.)	J (mm.)	Z (mm.)
10 l.	12	25	300	95	290
20 l.	12		360	95	330

Proiektu / Proyecto –	Orria / Hoja
Data / Fecha 2023 URRIA	
Eskala / Escala –	